

A santina das Madres

drogeteniturri

TOKIKOM

Ermua eta Mallabiko aldizkaria 174. alea 2009ko abendua

Telekomunikazio eta Instalazio Elektrikoak

ETEN ANALOGIKOA
2010 eko URTARRILEAN izango da Bizkaian.

→ Cable Spot -ek zure antena LTDra egokituko du!

25 urteko esperientzia dugu
antena kolektiboak eta
atezain automatikoak instalatzen.

Deitu
943 17 23 14
telefonora



TELEFONIA

Euskaltelen Banatzaile
Ofiziala

Telefonia mugikorra,
finkoa, internet,
cable telebista

euskaltel



San Pelayo, 4 -ERMUA-
Tel. 943 17 00 28

1978tik



Senén

www.joyeriasenen.com

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)
247 posta-kutxa
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 93 50.
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org

ERREDAKZIO TALDEA:

Estibalitz González,
Asier Ibaibarriaga,
Alazne Aiestaran,
Eneritz Aranburu, Olatz Gil
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Estibalitz González.

LAGUNTZAILEAK:

Igone Amesti, Patxi López,
Juanxo Díez, Valentín
Mugarza, Idoia Carracedo,
M^a Luisa Tato, Justo Azagirre
eta Fede Iturriagagoitia.

ARGAZKIAK:

Txindurri, Ioritz Rasero, Eva M.
García, Asier Ibaibarriaga,
Estibalitz González, Eneritz
Aranburu eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

688 63 28 76.

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Aritz eta Ekaitz Muñoz, Jon
Arano eta Ane Loiola.

TIRADA:

2.200 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/94.

*Drogeteniturrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

Okil Txikia *Trepador azul* *Sitta europaea*



Txori txiki sendokote honek, gorputzaren gaineko alde urdinxka duen bezala, zurixkak ditu azpiko eta papar inguruko aldeak. Moko zorrotz eta luzea du eta apatx indartsuak, zuhaitz-enborretara gogor oratzeko. Ikustekoa izaten da enborrean behetik gora eta trebetasun berdinarekin goitik behera zelan egiten duen, arin. Pago eta haritz-arbolen zuloetan egiten du habia eta zulo hori handiegia denean, basatzarekin txikitzen du. Aixola gaineko basoan, aitarekin noala, topatuta nago lokatzarekin txikitutako okil-habia. Igeltseroek, gutxitan hain porlan gogorrik!

Hilabete honetan...

TALDE-TXOKO4	BOTEPRONTOA16
Euskal Birusa Elkarte Kulturala	Alazne Elordi
ELKARRIZKETA5-7	KIROLZALE17
Ioritz Rasero	Asier Ibaibarriagaren agurra
MALLABIAN ZER?8-9	ANTZINAKOAK.....18
Desagertutako ermitak	Ermua eta Mallabiko argazkiak
ERREPORTAJEA10-11	SALEROSKETAK19
la-ia beatifikatutako ermuarra	Saldu, erosi edo agurtu
EROSKETA GIDA.....12-13	IRITZIA20
MOTZEAN14	Adin txikiko etorkinak
Txindurri taldearen egutegia	KALEKO INKESTA21
ERMUAN ZER?15	Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak
Juanita Ibaibarriaga liburua	AGENDA22
	Urtarrileko agenda

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Euskal Birusa Elkarte Kulturala

Aurten 20. urte bete ditu Euskal Birusak eta hori ospatzeko elkarteak bere webgunea martxan ipini zuen maiatzean. Horretaz gain, San Martin Azokari indar gehiago emateko asmoz, txerria ekarri zuten eta animalien azoka egon zen Baldespina parkean.



- Zein urtetan sortu zen taldea?

Taldea 1989. urtean sortu zen. Aurten, beraz, gure 20. urteurrena ospatzen ari gara.

- Zenbat kide zarete?

Talde eragilea 15 lagun inguruk osatzen dugu eta 287 bazkide ditugu.

-Zeintzuk dira zuen helburuak?

Euskararen erabilera sustatzea eta ermuarrei euskaraz bizitzeko aukerak eskaintzea, berau gozamen iturri dela erakutsiz.

-Zein maiztasunarekin biltzen zarete?

Hilean bi egunetan biltzen gara, astelehenean; bilera horietan taldeak garatu behar dituen ekimenak zehaz-

ten ditugu eta bakoitzaren egin beharrekoak finkatzen dira. Horretaz gain, korreo elektronikoz ia egunero dugu elkarren berri.

- Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

Hainbat ekitaldi antolatzen ditugu. Agian ezagunena San Martin Azoka da, baina horretaz gain Hartza eguna, Udako Postal Lehiaketa, Ahozko Ondarea, Ermuan Kantuan, Berbetan Jardunaldiak, Juanita Ibaibarriaga Literatura saria, San Juan sua eta Liburu eta Disko Azoka antolatzen ditugu. Gainera hilero-hilero Drogeteniturrri Ermua eta Mallabiko aldizkaria kalertzten dugu (honek ere 20 urte bete di-

tu aurten). Horretaz gain, herriko beste taldeek antolatutako zenbait ekimenetan parte hartzen dugu.

- Txangorik egiten duzue?

Bai, aspaldidanik txango kulturala egiten dugu urtero San Martin Azokan kolaboratzen egoten diren talogile eta txikurixetako laguntzaileekin. Aurten, esaterako, Bermeoko Arrantzaleen museora eta Mundakara joan gara.

-Zuekin harremanetan jartzeko?

Gure bulegoa Elexosten dago (Erdi-kokale 2, 1. pisuan). Telefona 943179350 da, helbide elektronikoa euskalbirusa@euskalnet.net eta gure webgunera sartzeko www.euskalbirusa.org klikatu besterik ez duzu!

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40
Zubiaurre, 12

Tel. 17 00 63
Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA


GARAGARDOGEGIA

CERYECERIA
NHEV

ZYTik

OTARTEKO eta
INPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna

943 17 39 78



Ioritz Rasero, kooperantea Kolonbian:

**“Kolonbian bizitzak ez du
hemen beste balio”**

Uztaila eta urria bitartean Medellin hirian egon da Ioritz Rasero ermuarra. Sentsibilizazio beka bati esker izan du bidaia hau egiteko aukera eta Kolonbian bizi izandakoek, Gizarte Hezkuntzako ikasle honen pentsaera eta mundua ikusteko era aldatu dute. Hala ere, datorren urtean bere kabuz Kolonbiara bidaiatzeko asmoa du.

e|karrizketa

- Venezuela, Peru, Mexiko edo Indiara joateko aukera zenuen

Eusko Jaurlaritzako bekarekin eta Kolonbia egokitu zitzaizun. Herrialde horrekiko aurreiritzirik zenuen?

Armak, gerrilla, paramilitarrak eta droga ikusten dugu guk Kolonbian, baina errealitatea oso ezberdina da. Jendeak oso leku arriskutsua zela esaten zidan.

- Eta zer topatu duzu bertan?

Oso jende adeitsua eta jatorra topatu dut, sinestezina benetan. Eurentzat kontaktu fisikoa oso garrantzitsua da, agutzerakoan esaterako, eta hemen oso oso hotzak garela konturatzeko balio izan dit. Horretaz gain, oso leku polita ezagutzeko aukera eman dit bidaia honen.

- Bertako Salesianoekin egon zara 3 hilabetez...

'Don Bosco' hirian egon naiz. Gune oso handia da, horregatik deitzen diote 'hiria', eta jantokia, logelak, eliza eta goi-mailako zikloak ikasteko instalazioak ditu. Euskal Herriko 5 boluntario egon gara bertan, Suitzako boluntario batekin batera. Horretaz gain, zentroan 200 edo 300 langile kolonbiar daude gutxi gora behera, 1.000 ume eta gaztek bertan ikasten dute eta 300 inguruk bertan egiten du lo.

- Bertan egiten zenuen lan?



Ez, han bizi nintzen, baina 'Patio Alberguen' egiten nuen lana, kaleko umeekin eta ume behartsuekin. Paramilitarrak mehatxatutako umeak ere bertara eramaten zituzten euren familiakoek.

- Gerrillakoak ere gertu izan dituzue orduan?

Bai. Salesianoek CAE deituriko egoitza dute (Arreta Bereziko Zentroa) eta gerrilletatik urrundu nahi diren gerrillari eta paramilitarrak bertara joaten dira.

- Eurekin berba egiteko aukera izan duzue?

Bai eta kontatzen zigutena harrigarria zen. 15 edo 16 urteko gazteek jendea hiltzen zutela kontatzen ziguten. "Hil egitea erreza da,

ahaztea, berriz, zaila", esaten ziguten. Izugarria da: hiritik kanpo bizi diren umeak 10 urte betetzen dituztenean, gerrillara joatera behartzen ditu gerrillak. Hau ez da beti gertatzen, baina guk horrelako kasuak ezagutu izan ditugu.

- Eta egoera horretatik ihes egiteko 'Patio Alberguera' eramaten dituzte?

Batzuk bai. Paramilitarrek mehatxatutako ume bat 'Patio Alberguen' bizi zen gurekin eta ezin zen ezertarako irten, herio-mehatxua egin ziotelako. Oso gogorra da 10 urteko ume bati horrelakoak entzutea. Beste batzuek aseturuetan euren etxeetara bueltatzen dira.

- Eta paramilitarrak ez dira 'Patio Alberguera' sartzen?

Ez. Leku itxia da eta guardiak daude. Hara sartzea boluntarioa da, baina umeak ezin dira irten eurek nahi

duten guztietan, batzuk drogatzekeko irteten direlako. 10 eta 13 urte bitarteko umeak kalean drogatuta egoten dira batzuetan. Kola erabiltzen dute. Zapatak pegatzeko erabiltzen dute zapatariek kola hori eta 'Sacol' du izena. Jendea euren ondotik pasatzen da eta ez dituzte begiratu ere egiten. Azkenean nolabait ohitu egiten zara, normalizatu egiten da.

- Drogazaletasuna ume eta gazteen artean handia da?

Kasu batzuetan bai. Kolaz gain, 'basuko' deituriko droga kontsumitzen da. Kokainaren deribatua da, erre egiten da eta menpekotasun handia sortzen du, burmuinean kalte handiak sortzen ditu, orbanak... Ume askok marihuana ere erretzen dute.

- Zelan lortzen dute droga erosteko dirua?

Drogak oso merkeak dira. Kola pote batek 1.000 peso

**"10 urte betetzean,
gerrillara joatera
behartzen dituzte umeak"**

ILEAPAINDEGIA
Izaskun
Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

komunitateak
aseguruak
San Pelayo
aholkularitza
fiskal eta juridikoa
Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

PUB YOMY
**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

inguru balio du (30 zentimo inguru) eta diru hori oso erraz lortzen dute: kalean eskatu eta jendeak dirua ematen die. Kolonbiar bantentzat 1.000 peso ez da ezer. Kokaina gramo batek euro bat, bi euro...

- Gaizki ikusita dago drogak kontsumitzea?

Bai, orokorrean bai. Baina hirian 'tolerantzia guñeak' daude eta hor polizia ezin da sartu. Gainontzeko lekuetan ezin da ezer kontsumitu.

- Nola zaintzen dituzte umeak eta gazteak egoitza horretan?

Kaloria asko dituzten janariak ematen dizkiete, esaterako, batzuk euren etxeratan ez dutelako jateko ezer. - **'Don Bosco' hiritik irtezen zinetenean, zer egiten zenuten?**

Don Marioren dendara joaten ginen zerbait edatera, baina bi hilabete pasa eta

gero leku hark 'bala mehatxua' zuela jakin izan genuen. Autobusa hartzen genuen lekuak ere, 'bomba mehatxua' zuen. Gainera gauetan metraileta hotsak entzuten genituen.

- Beldurra sentitu duzu?

Ez. Agian axolagabe hutsak izan gara, baina ez dugu beldurrik izan.

- Zergatik dago hainbeste mehatxu?

Kolonbiako gobernua paramilitarismoa ordaintzen du gerrillaren kontra joateko, baina paramilitarrek boterea handia dute gaur egun eta euren artean taldeak sortu dira. Auzo ezberdinak kontrolatu nahi dituzte eta gu bizi ginen auzoan dirua zegoenez, hura kontrolatu nahi zuten. Orain gainera, paramilitarren artean 'Águilas negras' deituriko taldea sortu da. Euren betebeharra garbiketa soziala egitea da. Paramilitar asko ez daude

ados eta euren artean arazoak sortu dira. Medellinen entzuten diren tiro gehienek paramilitarismo eta drogekin zuten zerikusia. Bizitzak eta heriotzak ez dute hemen duten balio bera.

- Zer aldatu du bidaiaren honek zure baitan?

Pentsatzeko eta mundua ikusteko modua. Hemen gauza asko ditugu eta ez gara zoriontsu. Han, guk ditugun gauza asko eta asko ez dute eta pozik bizi dira.

- Desberdintasun nabarmen gehiago?

Hezkuntza eta kultura aldetik gabezia handiak dituzte eta matxismo handia dago, nahiz eta eurek ez diren oraindik horretaz jabetu.

Beste gauza batzuetan gure aurretik dabilta, Interneten erabileran eta prezioan, esaterako: oso merkea da eta asko erabiltzen dute.

- Bueltatuko zinateke?

Bai, datorren udan buelta nahi dut, baina ez nintzateke Salesianoekin bueltatuko. Salesianoek botere handia dute Kolonbian, diru asko dute eta oso arau zorrotzak. Orokorrean ez zait gustatu euren lan egiteko era.

- Hemendik laguntzea posible da?

Nik jendea animatuko nuke, ahal duen neurrian lagundu dezan. Ez da beharrezkoa 3 hilabete bertan pasatzea, beste gauza asko egin daitezke. Esaterako, bidetako merkataritzako produktuak erosi: txokolata, kafea...

- Besterik komentatzeko?

Bai, aurrekoarekin lotuta. Multinazionalen gauza ikaragarriak egiten dituzte. Esaten dutenez, Coca-Colak paramilitarrak ordaintzen ditu sindikalistak hiltzeko. Bestalde, Repsolek paramilitarrei ordaintzen die nekazariak euren lurretatik botatzeko. Repsolek palma landatzen du biodiesela ekoizteko. Palma bost urte jarraian landatzen bada, lurra lugorri geratzen da eta basamortu antzeko paisaiak sortzen ari dira.

Dorleta Vidal



solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA



Mallabiko desagertutako ermitak

Ariñoako San Trokaz

Desagertua da Mallabia eta Berriz arteko mugan zegoen ermita hau, gaur egungo San Trokaz baserriaren ondoan. 1635. urtean ermita honen aipamena egiten da. 1793. urteko uztailearen 26an Francisco Mateo Agiriano Kalagurriko (Calahorra) gotzainak egindako bisitan konpontzea agindu eban. Berrogeita hamazazpi urte geroago Pablo Garzia Abellak, Kalagurri eta Kaltzadako gotzainak, 1847.eko urriaren 16an ikusi ondoren, hondatuta eta profanatuta egoela adierazi zuen eta ugazabari hiru hilabeteko epea emon eutson berau konpontzeko.

Gereako

Gastanondoko San Martin

Ibarra baserriaren aurrean zegoen kokatuta desagerturik dagoen ermita hau. Labayruk aipatzen duenez, 1741-1742.ean San Martin Tours-ekoari eskeinitako ermita bat zegoen Gerean, egoera tamalgarrian berau. Bertako liburu-kontua 1604ko irailaren 2an hasten da eta 1767.ean amaitzen da. 1793.ean Francisco Mateo Agiriano gotzainak egin zuen bisitan aipatzen da zeharo hondatuta egoela eta arduradunei eskatu eutsen, meza eta abar nahi baitziztuzten, sei hilabete barruan ermita hura konpon zezatela eta hori egin ezean, ermita bota eta beste leku batean beste bat eraikiko zela. Esaten da, kontatzen da... gerriarrek ermita honi su emon eutsiela apropos bertako santua, Tours-eko San Martin frantsesa zalako.



Mallako

Angel Santua

Desagertua, Mallako tontorrean, Mallegoi baserriaren ondoan zegoen kokatua, gaurko San Pedro ermitatik 100 bat metrora. Ermita honen lehen aipamena 1606ko kontu-liburuan agertzen da, Kalagurri eta Kaltzadako gotzainak egindako bisitaren ondoren. 1793.eko uztailearen 26an Kalagurri eta Kaltzadako Fco Mateo Agiriano gotzainak egindako ikustaldian, hormak gogortzea eta pinturak margotzea eskatu eban. 1847ko urriaren 16an, Ildefonso de Urizar, Mallabiko Andra Mariko abadeak eta Kalagurri eta Kaltzadako Pablo Garzia Abella gotzainak egindako bisitan, ermita hau botatzea erabaki eban, bere lekuan gurutzen bat jarritz. Honen ordez beste ermita bat eraikitzea erabaki eban: San Pedro Bidartekoa.

Mallagoiko

San Pedro ermita

Desagertua, gaurko San Pedro Bidarteko ermitatik 50metrora egoan kokatuta, sartalderantz. 1847ko urriaren 16an Kalagurriko Pablo Garzia Abella gotzainak ermita hau botatzea agindu eban, egoera kaxkar eta tamalgarrian aurkitzen zalako. Mallako Angel Santuaren eta Mallagoiko San Pedroren ordez, bi ermiten erdi xamarrean, Bidarteko San Pedrorena eraiki zen, 1847ko urriaren hasita.

Justo Azagirre eta
Eneritz Aranburu





FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89


943172665 ERMUA



Zubiaurre 20

Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona

GABON JAIEAKO EGITARAUA



Azken urtietan lez, Udaletxeko kultura arduradunek hainbat talderekin batera, Gabon Jaiearako egitarau zabal bat antolatu dabe. Abenduaren 19xen Jasokunde eta Mendibil abesbatzek Orraittio Eukara elkartiaren laguntzarekin 'Amama Inaxiren ipuina' ikuskizuna eskeinitiko dabe. Pello Mugarza eta Itziar Garitagoitiak idatzitako ipuinien, gabonetako betiko kantuek kantatuko dittuez kantarixek Mari Domingi eta Olentzerokin batera. Arratsaldeko 19:00retan izengo da ikuskizuna Mallabia I Kirol Etxean. Olentzero bera abenduaren 24en etorriko da berriro Mallabirre. Iluntziko 19:00retan Plazan topatuko dogu bere astotxuakin, han batzen direnei oparixek banatzeko asmotan. Domekan, hilak 27, Jasokunde eta Mendibil abesbatzak gabonbatzen jardungo dabe egun guztixen ziber. Goizeko 11:00etan hasitte iluntziko 19:00rek aldera arte, auzoz auzo eta etxe etxe ibiliko dira gure kantarixek eta trikitilarixek. Abenduaren 31an, urteko azkeneko egune izaki, Udalak Bouqueta antolatu dau Parkeko anfiteatruen, iluntziko 19:00etan. Bouquet hau zer dan jakin nahi dabenak, bertaratu besterik ez dauke arda onen usain liluragarririk dastatzera. Ondoren herri txikiteue egingo da herriko tarbenetan. Gabonetako egitaraua amaitzeko urtarilaren 2xen, zapatuen, umientzat jolas parkie egongo da Mallabia I Kirol Etxian goizez 11:30-13:30 eta arratsaldez 16:30-19:30. Ondo pasatu Gabonak eta Urte Barri On danoi!!!

...

LTD, LURREKO TELEBISTA DIGITALA GURIEN DA...

...eta zer da ba berau? Erderaz TDT. Holan bai? Ba telebista ikusteko era barrixe ei da. Askok daukie honezkero etxietan ipinitte, baina itzalaldi analogikoaren aurrien hainbat argibide eta gomendio emote aldera, Mallabiko udalak bando eta gutun bidez informatu dittu mallabitarak. Gaur egun gure telebista normaletan ikusten doguzan telebista kateez gain, beste hainbat ikusi ahal izengo doguz, guztire 44 EAEn. Kalitate hobeko irudixek izengo ei dira eta irudi honei aplikazio barrixek be gehittuko ei jakuez. Durangaldien, 2009ko abenduaren 31ean emango da Itzalaldi Analogikoa, baina orokorra estatu osuen 2010eko apirilaren 3en emongo da. Halan eta guzti, itzalaldi hau ez da bapatien burutuko. Itelazpik, EAEn LTD seinalearen eskumena daukan erakundeak, iragarki eta telebistan agertuko diren azpitoluen bittartez abisue pasatuko deusku. Prozesue fase desberdinetan, apurke-apurke burutuko da. Estaldura bermatu edo garantizatu ahala, orain arteko seinale analogikue amatatu egingo da. Gure auzo eta etxeetan LTDaren estaldura dugun edo ez ikusteko www.itelazpi.net eta www.televisiodigital.es interneteko orrietan sartu besterik ez daukagu. Eta:

1. Gure auzuen LTD estaldura daukagule zehaztu behar dogu.
2. Antena konpontzaileari deittu, honek gure etxeko antenie LTDra egokittu daixen. Itelazpik homologatutako instalatzaile profesionalak dagoz, Asoc. Vizcaína de Instaladores de Telecomunicación 94.4 39.64.69, Avitel Elkarteko instalatzailek dira. Elkarteko antenisten zerrenda topatuko dogu www.avitel.biz web orrixen
3. Etxeko telebista barrixe bada, erantsita eukiko dau LTD hartzaile. Telebista zaharra bada, hartzaile txiki bat erosi beharko da seinalea ondo harrapatzeko.

Arazorik izan ezker, udaletxera 943171461 edo eskualdeko Landa Garapenerako Alkartearen IKT Dinamizatzailei deitu 688.61.35.37. Hauek Itelazpiri helaraziko deusiez jasotako estaldura arazoak.

Eneritz Aranburu

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak,
telebistak, bideoak,
musika aparatuak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

MUGA

KALORIK



San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

I AKADEMIA

E ERMUA INFORMATIKA

TRESNERIA ETA OSAGAI
INFORMATIKOEN SALMENTA

Goienkale kalea z/g
Telefonoa (943) 17 90 38

IZOTZ
KONTELATUAK



Ermuko Merkatua,
54 eta 55 postuak
943 17 41 01
Arrasateko Merkatua
943 77 05 98

ELUR

ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa



Aldapa 1 **943 17 60 52**

URRETA burdindenda

- × Etxea
- × Tresneria
- × Brikolaita
- × Rielak
- × Giltzak
- × Zerrailgintza
- × Kit altzariak



Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

la-ia beatifikatutako ermuarra (eta V)

‘A santiña das Madres (Amen Santatxoa)’ ezizenez ezaguna zen Santiago de Compostelan M^a Josefa de Aedo y González moja, 1766an Ermuan jaio eta Compostelan ‘Santa iritzian’ hildakoa.

Bide guztiek ez daramate Erromara, ez. Gureak, 4 kapitulu-tan barrena, Done Jakue Bide, errege-bide edo bidezidorretan zehar emakume honen hilobiraino ekarri gaitu. Beraren gaineko lehen aipamena Ignacio Urretaren ahotik izan nuen, berari buruz zerbait irakurria zuela-eta Estanislao Labayruk 1895-1903 bitartean argitaratutako *‘Historia General de Bizcaya’n*, 825-834 orrialdeetan.

Gerora, Marcelino Onandiak ere 1973an argitaratutako *‘Ermua II, Monografías de hombres ilustres de la villa hasta el s. XX’* liburuan aipatzen du, baina biek ere beraien lanak egiteko oinarritzat hartutakoa beste liburu bat da, Marcos Parcerok apaizak idatzi eta 1842an Compostelan berrargitaratutakoa, zeinak honakoa jasozten zuen azalean: *‘La monja de las Madres sor M^a Josefa del Rosario, a quien siendo de velo blanco (lega) se dignó M^a Santísima poner el negro en el coro de su*

convento de la ciudad de Santiago el día 23 de septiembre de 1801; y pasados después de cerca de cuatro años, murió en opinión de Santa en 1805’.

Gertakari harrigarriak

Hurrengoa hemendik eta handik bildutako datuen laburpena da:

. 1766ko azaroaren 3an jaio da Ermuan M^a Josefa de Aedo y González neskatoa; gurusoak Manuel de Aedo y Hermoso eta Francisca González de la Matanza dira, jatorriz Villaverde de Truciosekoak eta amaren aita Soportakoa. Jaiotzean, aita hil berri du; Ermuan biziko da 14 urtera arte.

. 1780 urtearen azken aldera Francisca Gonzálezek alaba hartu eta A Coruñaara joatea erabakiko du.

. 1788ko urriaren 31n Mesedetako Abitu Santua hartuko du sor M^a Josefa del Rosario izenarekin. Bere bizitza guztiz da eredugarria, munduarekiko bere aldenetze-ahalegina ukuezina eta

Ermuar lekaime honen hilobia Santiago de Compostelan.



bere umiltasun eta obedi-tziaren ospea komentuko hormetatik haratago zabalduko da. Jendeak miretsi egiten du eta “A Santiña” (Santatxoa) deitzen diote. Gure Jauna hartzen duen bakoitzean ez du beste jatekorik probatzen eta 40 eguneko baraua egitera iritsiko da, Kristok basamortuan egin zuena eredutzat hartuta.

.1801eko irailaren 23an Ama Birjinak Mesedetako Amei dagokien belo beltza ezarriko dio, lega izatetik atereaz. Gertakari hori aparteko beste batzuen ar-

tean lehenengoa da; ondorengoak aipatzen dituzte bere biografoek: sekula latinik ikasi gabe berben esanahia ulertzeko gai zela eta salmoak, ikasi gabe eta brebiariorik barik, hutsik egin gabe entonatzan zituela.

. 1805eko uztailearen 5ean, osteguna, bere moja kideak agurtu -une hartan gaixotasun berezirik izan ez arren- eta lau egun beranduago, uztailearen 9an, hilko da.

Haren ospea Galizia, Asturias eta Gaztelako herri eta hirietara zabalduko da eta Elizak, berari buruzko guztiak zehatz-mehatz aztertu

DO
Mouth

Drogeteniituri, 174 zkia.

san pelayo
clínica dental hortz klinika

San Pelayo 5. 1^o
Ermua (Bizkaia)

Olatz García Arregui

943 17 04 04

Infreñu
Taberna

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

ondoren, txosten bat prestatuko du beatifikazioa bultzatzeko.

Gorpua usteldu gabe

Idatzizko informazioa eduki arren, horrenbeste urteren buruan ermuar honen arrastorik topatzea zaila izango zelakoan nengoen. Santiago de Compostelako komentuen artean bazen Mesedetako enbat, eta telefonoz deitu nuen. Harrituta utzi ninduten komunitateko mojek -jakina, ezagutzerik izan ez bazuten ere-, hemen bildutako hainbat gauza kontatzen zituztelako oraindik ere.

Denbora honetan sor M^a Luisa Tato Gil izan da nire informazio-iturri; argazkiak eta sor M^a Josefaren biografia bidaltzeaz gain, Santia-

gora bisitan joateko gogotxo piztu zidan. Gainera, bere bitartekaritzari esker ditugu hemen ermuar berezi honen hilobiaren argazkiak. Gogoan ditut M^a Luisaren hitzak: *“Gauza hauek ez dute zentzurik gizalegez, baina badute naturaz gaindiko zerbait; sinestean edo ez sinestean dago gakoa”*.

Lau eguneko zubi hura izan zen bertaratzeko aitzakiarik onena. Goizean goiz iritsi eta arratsaldeko lauetarako geratu ginen, komentuan bisitak hartzen dituzten ordua. Agudo ohitu ginen, tornuari bira eraginez, hormaren alde batetik bestera gauzak pasatzearen sistema hartara. Une zehatz baten *“Hor doa sor M^a Josef!”* esan zigun Sor M^a Luisak, eta tornuari bira egitean itzelezko koadro batekin

egin genuen topo: Ama Birjinak moja bati belo beltza ezartzen zion irudia.

Gero nire kamara izan zen komentuen barrualdera bakar-bakarrik bidaiatu zue-na, eta klaustroaren eta sor M^a Josefaren hilobiaren irudiak grabatuta ekarri zitue-na.

Beraien eskuekin egindako gantxilozko zapitxo bat oparitu ziguten. Ikusgarria! Eta azken detaile bat ere izan zuten, klausurako komunitate baten oso arrunta ez dena: mintzalekuko ateaak zabaldu zizkiguten, burdinen bitarteetatik elkar ikus genezan. Ahaztezina 17 emakume haien ikuspegia: goitik eta behera zuri garbi-garbiz jantzita, etenik barik galde-tzen, erantzuten, irribarre egiten eta abesten, zeren

abestiak ere trukatu genituen, bakoitzak bere herrikoak gogoan.

M^a Josefa de Aedo y González enbat gorpua usteldu gabe mantendu zen urteetan; hil eta 100 urte beranduago, uholde baten ostean bere hilobia lekuz aldatu behar izan zutenean ahosabaia oraindik fresko, desegin barrik zuela ikusi zuten. Gaur egun bere gorpuzkiak estaltzen dituen hilarriaren azpian kutxa baten dago sartuta, komentuko kanposantuan. Ez da beraren gauza pertsonalik geratzen, ez eta Erroman bere beatifikazioaren alde egiteko bildutako dokumentazio preziatua ere.

Informazio hori guztia ‘Mendizabalen Desamortizazioa’ delakoaren garaian, 1836-1855 urteen artean desagertu zen, komentu guztiak saldu eta bertako dokumentuak espoliatu zituztenean. Compostelako Mesedetako hau zehazki militarren kuarteltzat erabili zen, harik eta erlijio-ordenak berreskuratu zuen arte. Santiagora bazoazte, Mazarelos Arkuaren pare-parean aurkituko duzue eta beldur gabe jo andre hauen atea (4:00 eta 6:30en artean, hori bai!). Ermutik, beraien Santiña jaio zen herritik etortzeak bereziki hunkitzen ditu.

Eta... bidaia-lagun estimatu hori, gure ibilbidearen amaierara ailegatu gara, ia ia Finisterreko lurretaraino. Har dezagun atsedena bada, merezi dugu-eta!

Estibalitz González



Mesedetako klausura komentuen klaustroa Compostelan.

OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**
- Tarta bereziak

• *Astelehenetik ostiralera 9etan zabalitzen dugu*

mari
asun 
LORADENDA

Diputación, 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

Gabonetako erosketa gida




943 10 82 42

Santiago Plaza 3, behea - 48260 ERMUA (Bizkaia)

DERMOESTETIKA ZENTROA
PILAR

ESTETIKA
MISTO
ESPEZIALIZATUA



- Depilazioak
- Aurpegi eta gorputzerako tratamenduak
- Depilazioak diodo laserrarekin.

Zubiaurre 24, 1. esk
943 17 30 66 (Ane)
48260 ERMUA




Sabinski
RELOJERIA REGALOS

Kantabria zeharbidea, 1 · ERMUA
943176034



Poltsak, karterak, gerrikoak,
manikurak, maletak,
osagarriak eta opariak.

Poltsak
SAGARDUI
Maletak

943 170305
b.sagardui@hotmail.com

Zubiaurre 29
48260 Ermua (Bizkaia)

Gutiérrez
JOSTUNDEGIA

Zubiaurre 33
ERMUA
943170180




IZAGIRRE

Calvin Klein
Punto Blanco
DIM
Playtex
Wonderbra
Frey
...

Komentukua kalea 2 48260 Ermua - Bizkaia **943 170 277**

Quetzal

Arropa, bitxiak, opariak...
zer ez!


Goienkale 9 · ERMUA **943170065**





KENKE
- Street wear -

Zubiaurre 13, behea · 943033788 · 48260 Ermua (Bizkaia)



optika
irze
Probaleku 7 - Ermua
943 17 46 51

DSKARO.COM




0 0 0



PABLO

OINETAKO
AUTOZERBITZUA

Sexto Centenario 19
943 17 54 09
ERMUA



YONARI
bisuteria eta osagarriak

Zorionak eta urte berri on gure bezero guztiei!!!

Erdikokale 3, behea

Casa Blanca
arropa denda



Goenkale 11, behea · 943 172 009 · ERMUA

Marfil
Osasuna Edertasuna Estetika

ILEAPAINDEGI BAT BAINO GEHIAGO



Goenkale 12 behea - ERMUA · 943 17 28 09

Bezero guztiarentzako
jai zoriontsuak!

**2010 INAUTERIETAHO
KARTEL LEHIAKETA**

Datorren urteko inauteriak iragarriko duen kartela aukeratzeko lehiaketa martxan dago. Kartelak edozein teknika erabiliz egin daitezke eta gutxieneko eta gehienezko neurriak hauek dira hurrenez hurren: 42x30 eta 48x33 zm. Lanak aurkezteko epea urtarrilaren 28an bukatuko da eta guztiak Abiapuntuan entregatuko dira. Saria 450 eurokoa da.

**ARTARRAI MT
GORBEAN GABON
ZAHAR EGUNEAN**

Artarraí Mendi Taldeak Gorbeara txangoa egingo du abenduaren 31an. Autobusa Agirre Kirolak denda paretik irtengo da 8:00etan eta Gorbeara heldutakoan xanpainarekin topa egingo dute mendizaleek. Informazio gehiago jasotzeko, Teresa Murga eraikineko 2. solairuan taldeak duen egoitzara joan beharko da, ostegunetan 19:30etik 20:30era.

*** AHATSAH
ZUZENTZEN**

Aurreko azaroko alean, 'Drogeteniturrri 20 urte' erreportajearen emandako datuak argitu nahi ditugu. 1992an kaleratutako alea ez zen '0. Zenbakia' izan, 'Ale Berezia' zen bere izena. 0. Zenbakia 1989an argitaratu zen eta Euskaldunon Egunkariaren instalakuntzetan maketatu zen. Hasierako ale haiek ez zuten koordinatzailearik, egitasmoa lan talde batek zeraman aurrera.

Txindurri taldearen egutegia 2010erako

Txindurri txistu eta dantza taldeak datorren urterako egutegia kaleratu du. Egutegia hamabi argazkiz osatuta dago eta argazki horietan taldeko mutilak ikus daitezke, dantzan egiteko erabiltzen dituzten tresna edo osagarriekin jantzita bakarrik. "Helburua - dio Iker Hildagok, Txindurriko dantzariak-, egutegiak saltzea da eta taldearentzat dirua lortzea. ETBko programa bat ikusi eta gero bururatu zitzaigun ekimen hau martxan jartzea eta taldeko neskek ez zuten parte hartu nahi, azkenean taldeko bost mutil bakarrik agertzen gara". Argazkiak Santos Vegak atera zituen, azaroko azken asteburuan, Elorreta inguruan. Taldeak 100 egutegi saldu ditu jadanik eta ale gehiago prestatzen ari da. "Ezin dugu oraindik konfirmatu, baina abenduaren 24an goizean Patxi plazan egongo gara egutegiak saltzen", diote. Egutegiaren prezioa 10 eurokoa da.



				Ostapala/Julio			
ostelena	ostertza	ostuakena	osteguna	ostirala	larunbetea	igandea	
			1	2	3	4	
5	6	7	8	9	10	11	
12	13	14	15	16	17	18	
19	20	21	22	23	24	25	
26	27	28	29	30	31		

Abenduak 3, Euskararen eguna

Abenduaren 3an Euskararen nazioarteko eguna ospatu zen eta Ongarai eskolan hainbat ekintza egin ziren egun osoan zehar. Goizean pelikulak, mahai jolasak eta muralak landu ziren eta arratsaldean kirol jolasetan aritu ziren ikasleak. Eguna bukatzeko, abesti eta dantzak egin ziren eskolako gimnasioan eta giro bikainarekin amaitu zen euskarari buruzko ospakizun eguna. Horretaz gain, Eskolabarriko Euskara Batzordeak azarokoaren 17an egin zuen lehen bilera. Batzar horretan hautatuak izan diren batzordekideek euren kargua hartu zuten, eskolan Euskara bultzatzeko gogoz. Euskara Batzordeak antolatuko zuen lehen ekintza abenduaren 3ko Euskararen Eguna izatea erabaki zuten batzar horretan.

**Uni Eibar-Ermuako ikasleak Euskaltelen eta Arsysen**

Uni Eibar-Ermua BHiko informatikako ikasleek bi txango egin zituzten azarokoan. Informatikako zikloetako 1. mailako ikasleak (IAG eta ASI goi mailan eta SMS erdi mailan) Euskaltel enpresak Zamudioko Parke teknologikoan dituen instalazioak ikustera joan ziren. Bertan, telekomunikazio sistemen arduraduna den Inaxio Antoñanarekin hitz egiteko aukera izan zuten. Informatikako zikloetako 2. mailako ikasleak, berriz, (IAG eta ASI goi mailako taldeak eta ISU-ESI erdi mailako taldea) Logroñoko Arsys enpresan egon ziren. Bisitaldian ikasleek ARSYS enpresak daukan egoitza nagusia ikusi ahal izan zuten, besteak beste, eta enpresa horrek hainbat herrialdeko web orriak (150.000 web orri inguru) gordetzeko erabiltzen dituzten ordenagailuak ikusi eta aztertzeke aukera ere eman zieten.



BOAN Oinetakoak

SEXTO CENTENARIO, 17 (943) 17 13 44
48260 ERMUA Bizkaia

ALBOKA MUSIKA ESKOLA

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

Juanita Ibaibarriaga lehiaketa, liburuan bilduta

Euskal Birusa Elkarte Kulturalak Juanita Ibaibarriaga Literatura Lehiaketako 2008 eta 2009ko irabazleak liburu batean bilduko ditu. Liburua hau irabazle, Euskal Biruseko bazkide, eskola eta euskategien artean banatuko da.

Juanita Ibaibarriaga Literatura Lehiaketaren 1. edizioa 1992. urtean ospatu zen. Urte horretan, irabazleen lanak liburu batean bildu ziren. Hamasei urte beranduago, ekimenaren antolatzailea den Euskal Birusa Elkarte Kulturalak azken bi urteetako irabazleen idazlanak liburu batean biltzea erabaki du.

Liburua urtarrilean kaleratuko da, 50 orri inguru izango ditu eta Gorka Gonzalez ermuarrak egindako ilustrazioez apainduta joango da. Horretaz gain, irabazleen argazkiak eta izenak ikusi ahal izango dira bertan. Guztira 500 ale kaleratuko dira eta horiek Euskal Biru-

saren bazkide eta ikastetxetan banatuko dira.

2009ko sari banaketa

Azaroaren 26an, Juanita Ibaibarriaga Lehiaketaren XVI. edizioko sariak banatu ziren Lobiano kulturgunean. Saridunak hauek izan ziren: 3. mailako Martzel Ugena ('Dani eta karrerak'), 4. mailako Mikel Ballesteros (Tiburtxio txerria Ermuko festetan'), 5. mailako Irene Piñeiro ('Futbola vs. Hip-hop'), 6. mailako Jokin Arano ('Denbora makina'), DBH 1ko Almudena Maeso ('Ur tanta baten istorioa') eta DBH 2ko Gaizka Tena ('Kaixo aitate!'). Guztiak Anaitasuna Ikastolako

ikasleak dira, Irene Piñeiro izan ezik, Eskolabarri eskolakoa dena. Gazte horiek 40 euroko erosketa txeketa jaso zuten.

Guztira 106 ipuin irakurri behar izan zituen epaimahaiak kategoria horretan. Bestalde, aurten erreportaje lehiaketa egin da Juanita Ibaibarriaga Lehiaketaren baitan eta erreportaje bakarra aurkeztu da. Anaitasuna

Ikastolako Olatz Santos, Jone Ojea, Laura Pascual eta Lidia Jiménezek idatzi zuten; epaimahaiak 100 euroko accesita ematea erabaki zuten.

Lehiaketa honen helburua, Ermuko gazte eta helduen artean euskaraz idazteko zaletasuna piztea da. Lehiaketa, Udaleko Euskara Sailaren laguntzaz antolatzen du Euskal Birusak.



IZENA: MARTZEL UGENA
EZ-IZENA: OLIVER
KURTSOA: LH 3. MAILA
IKASTETXEA: ANAITASUNA IKASTOLA

DANI ETA KARRERAK



Dani izeneko mutil bat bizi zen, ilea horia, begi urinak eta batean telebista ikusten zegoenean, notizia bat entzun zutela. Danik postu hori nahi zuen, horregatik rallya erruk eta konpontzaile bezala hasi zen: erruberrak aldatu, ... bost urte ibili zen konpontzaile bezala, diru nahikoa ... Mazda markakoa zen, grisa eta hiru ate zituen. ... zaile bat kontratatu zuen, Ander zuen izena eta bera ere ... so gogorak izan ziren baina merezi izan zuen, lehenengo ... larian Valentzian egiten zituzten karrerak, baina beste ... ziren: Parisera, Erromara... Hainbat hiri polit eta jende atsegin



NATURHOUSE
NUTRICION Y DIETETICA

“Adituak gara ondo elikatzen irakasten”

AINARA IRIONDO ANSOLA
Giza elikaduran eta Dietetikan Diplomatu

Komentukua 1, behea
943 17 63 72



URDAITEGIA - CHARCUTERIA
MAYTE
Plaza del Mercado
Tel. 17 24 12
ERMUA



CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta 3 L8 pab.
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14



KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

MENDIOLA
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19 48260 ERMUA
Telefonoa 943 17 22 43 (Bizkaia)

ALAZNE ELORDI

- Zure gaztetako oroitzapenik?

17 urte nituela ama hil zitzaidala eta etxeko amaren papera hartzea egokitu zitzaidala.

- Nolatan etorri zinen Ermura?

21 urte nituela ermuar batez maitemindu eta ezkondu nintzelako.

- Non ezagutu zenuten elkar?

Bera etorri zen bere koardilarekin Lekeition zegoen 'sala de fiestas' batera eta han ezagutu ginen.

- Makina bat lanetan aritu zara...

Denetik egin dut, egia esan. Taberna, umezain eta azken urteetan okindegian nabil.

- Zein da zure lanaren alde onena eta txarrena?

Onena, jendaurreko harremana eta txarrena aste-buruetan lana egin behar izana.

- Nolakoa da ohiko bezeroa?

Denetarik dago, baina orohar fidela eta zintzoa da.

- Estuasunik pasa duzu?

Egun batez bezero bat asortatu eta hil egingo ninduela pentsatu nuen. Izugarritzko beldurra pasa nuen.

- Ogia egin berri dagoena eta bezerorik ez bada-



Lekeitiarra jaiotzez nahiz eta aspalditik Ermuan bizi. Seme eta alaba baten ama. Okidengi batean ari da lanean eta datorren urtean jubilatuko da. Mendizale amorratua eta emakume hiltuna eta alai.

tor...

Ezin eutsi eta ogia jaten hasten naiz.

- Lanetik kanpo, zer egi- tea duzu gustoko?

Mendia, irakurketa, puzzleak osatzea eta zinea.

- Aktore bikote bat?

Paul Newman eta Elizabeth Taylor.

- Pelikula bat..

'El Color Purpura'.

- Jateko plater bat?

Kokotxak.

- Kantua...

Gustoko dut abestea eta nire kasa sarritan abesten dut. 'Itsasoari begira' da nire kanta, Benito Lertxundiarena.

- Euskal Herriko mendi bat?

Aitzkorri edo Gorbea.

- Lekeitio eta Ermua...

Ermuan urte osoan dago jendea; Lekeitio, berriz, udaran gainezka eta neguan hutsik.

- Jubilatzen zaren egune-

an...

Lana ahaztea kostako zaitzaidala uste dut.

- Emakumeen jasaten duten indarkeriaz zer diozu?

Legea gogortu beharko litzatekeela uste dut.

- Miresten duzun pertsona..

Nire ama, izeba eta amabinarriba.

- Bizitzak zer irakatsi dizu?

Beti ez dagoela pentsatzen duzuna esaterik.

- Jaiki eta egiten duzun lehen gauza?

Gosaldu.

- Defekturik?

Oso despistatua naizela. Adibidez nire alaba jaio zenean, aurrez erabakita geneukan izena ahaztu zitzaidan. Senarrak gogorarazi zidan.

- Negartia zara?

Pozak zein tristurak, biek sortzen didate negar malakoa.

- Loteria tokatu ezker...

Seme-alabekin banatuko nuke eta geratzen zaiguna senarra eta biontzako.

- 2010ari zer eskatzen diozu?

Orain antzera jarrai dezagula lanez eta osasunez.

Asier Ibaibarriaga

Yoga eskola

Sanatana Dharma

* Arnasketa.
* Ariketa egokiak...

San Roke 24, behea
Informazioa: 943748593 edo 685722131 (Idoia)

TELEFLOR INTERNACIONAL

Zubiaurre 14
Telef. 943 17 28 88
48260 ERMUA

EGUZKILORE

Asier Ibaibarriaga, 15 urteren uzta


“Noizbait behar zuen eta azkenean iritsi da agur esateko ordua. Hamabost urte, hilero-hilero Drogeteniturrin idazten egon ostean, iritsi da beste batzueri lekua utzi eta aro bati amaiera emateko ordua...”

“Bizitzak bere momentuak ditu eta beste kide batzuen antzera, nire garaia agortu dela eritzi diot. Hamabost urte guzti hauetan plazer handia izan da niretzat Ermuko zein Mallabiko kirolarien berri ematea. Hamabost urteren buruan, atzera begira jartzen hasi eta behin ume izan ziren kirolariak, heldutasun batetara iristen ikusi ditugu.

Nola ahaztu txirrindularitza munduan afizionatu mailan ezagutu genituen **Igor Astarloa, Pedro Horrillo, Asier Galdós, Aitor Hernández, Mikel Pradera** edo **Gorka Arrizabalaga** adibidez? Eskolarteko mailan ezagutu genituen baita ere, eskubaloian goren gorenera iristea lortu duten **Matxalen Ziarsolo, Esther Larreategi** edo **Ixone Mínguez**. Ezin aipatu gabe utzi atletismo munduan **Javi Villalobos, Alex Soto, Jorge Vega** eta makina bat kirolarik lortutako emaitzak guztiak ere **Antonio Ciden** lan ixilaren emaitzaren ondorio.

Lan ixila egiten duten makina bat elkarte eta pertsona ezagutzeko parada izan dugu. **Gaztela Leongo Atletismo taldea, xake taldea, afizionatu mailako APFE futbol txapelketa, arku jaurtiketa eskola** edo ta txirrindulari elkarteetan makina bat urtez ari den **Alberto Lasuen** zein herri kirol munduko **Ziriako, Pato, Zelailuze, Zelai anaiak**, hauen semeak edo **Miren Urkiolaren** ibilera. Makina bat poz eta laudorio zabaldu dituzte herriz herriz auzo auzo urte guzti hauetan.

Pilota munduan ezin aipatu gabe utzi **Olatz Gil, Mikel Txapartegi, Otxoa, Carlos García, Txori, Martin anaiak, Solozabaltarrak, Areitioaurtena, Albino Pradera** eta makina batek Ermuko eta Mallabiko pilotaren alde egindako lan esker-ga guztia. **Ander Martin** eta **Itxaso Praderaren** munduko txapelketak eta hainbat eta hainbat kontu, **Biharko Izarrak** esku pilota txapelketa, esate baterako.



1999. urteko uztaileko aleko portada, Titini elkarrizketa egiten.

Nola ahaztu kirolari ezagunak elkarrizketazera Ermutik ateratzen ginen egun haiek eh, **Santos? Joseba Arriaga, Lezaman** elkarrizketatu genuen bezela adibidez. Pilota munduan ere **Titin, Mikel Goñi, Olaizola, Barriola** eta makina bat ezagutzeko parada izan dugu. Ohore bat izan da urte guzti hauetan uzta honen partaide izatea.

Ahaztuko zaizkidan horiek ere ez ditut ahaztuak baina denak gogoratzea zaila da. Barka norbait ahaztu badut bidean.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiet, urte guzti hauetan kide eta maisu izan ditudan guztiei. Eskola handia izan da Drogeteniturrin niretzat. Eskerrik asko”.

Asier Ibaibarriaga

Pub Dakota



Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

Ardo banatzailea:

Riedel
Avgvstvs
Clos Mogador
Yllera
Cantosán
Luis Cañas

Hugel&Fills
Anima Negra
Trache
Cillar de Silos
Vriego
Laurona

DISTRIBUCIONES **ARRAL**
TELEFONOA: **943 17 60 75**

Argazkia hau 1955 urte inguruan aterata dago, Kalbarixuen, ondoan omen zeuen eskolae. Bertan agertzen dira: Luis M^o Onaindia, Luziano Urruxuru, Jose Martin Gisasola, Pedro Mari Areitioaurtena, Luis Pradera, Paco Aranburu, Jose Ignacio Pradera, Justo Azagirre, Jose Luis Aldalur eta Eneke Aranzibia.



1955
(MALLABIA)



(ERMUA)
1972

37 urte betetzen dira Ermuan Olentzero estreinakoz erre zela eta Euskal Herriko lehenetariko izatearen ohorea du. Plazan erretzen dihardutela dago aterata argazki hau, 1972ko abenduaren 31an, abestu beharrekoak –euskaraz-, zentsuraren oniritzia pasatu ostean.



**ERA GUZTIETAKO MUTUA
ETA ASEURUEKIN
KONTZERTATUA**

ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- FISIOTERAPIA
- 3. ADINEKO MANTENIMENDUA
- ESFORTZU PROBAK
- KONTSULTA ETA ERREKONOSIMENDU MEDIKOAK
- ODOL ATERATZE ZENTROA, EGUN BEREAN ERANTZUNA JASOZ
- MASAJE TERAPEUTIKOA - KIROL MASAJEAK
- URGENTZIAK


Diputazio Etorbidea 8-10 48 260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16
Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@euskalnet.net

**Abenduak 18**

Zorionak Arantzazu!
Bederatzi urte! Musu handi bat Maitane, aitatxo eta amatxoren partez.

**Urtarrilak 9**

Zorionak Jokin zure 4. urtebetetzean denon partez, bereziki amamaren partez. Musu handi bat!

**Urtarrilak 14**

Zorionak Pello. 6 urte, esku bat eta gehiago! Sei musu handi!

**Abenduak 12**

Zorionak Uxue bi urte bete dituzulako. Alai eta irribarretsua jarraitu.

Zer edo zer saldu, erosi edo alokatu nahi baduzu, edo norbait zoriondu nahi baduzu, bidali zure iragarkia drogeten@gmail.com helbidera edo 943 17 93 50 telefonora deitu.

Hurrengo alerako azken eguna:
URTARRILAK 18

Drogeteniturrin kolaboratzaileak behar ditugu.

Drogeteniturrin kolaboratzaileak behar ditugu. Idaztea gustuko baduzu, deitu 943179350 telefonora edo drogeten@gmail.com helbide elektronikora idatzi. Behar zaitugu! Drogeteniturrin

deitu **943179350** telefonora edo

kolaboratzaileak behar ditugu. Idaztea gustuko baduzu, deitu 943179350 telefonora edo drogeten@gmail.com helbide elektronikora idatzi. Behar zaitugu! Drogeteniturrin kolaboratzaileak

behar ditugu. Idaztea gustuko baduzu, deitu 943179350 telefonora edo drogeten@gmail.com

Behar zaitugu!

helbide elektronikora idatzi. Behar zaitugu! Drogeteniturrin kolaboratzaileak behar ditugu.

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA



EGAÑA

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

TALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK 943 030 299**

OINAK

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

AHOLKULARITZA FISKAL ETA LEGALA

URIARTE IRAEGI, S.L.

Komentukoa 3
Telefona: 943 17 33 87 • 48260 ERMUA (Bizkaia)



Neska-mutiko hauek ere badira Euskal Herriko errealitatearen parte...

Juantxo Diez

**ERMUKO
NAZIOARTEKO
ELKARTASUN ETA
LANKIDETZA
KONTSEILUKO
PARTAIDEA**

Giza Eskubideak eta lege ordenamenduari jarraiki, Administrazioak bere gain hartzen ditu, euren ardura hartuko duen heldurik ez duten adin txiki-koak. Legeak ez dio arretarik jartzen jatorriari edo azalaren koloreari.

Familiarik gabe dauden neska-mutiko hauek, egoera zailean aurkitzen dira, eta hura gainditzeko euren adineko beste edozein nerabek behar dituen bi gauza behar dituzte: heziketa eta maitasuna. Zaila izango dute azken hori senti-

zea, euren jatorri hutsagatik gizarteak baztertu eta errugabeak erredunen partez zigortzen baditu.


Bakarrrik dauden adin txiki-ko etorkinen %90ak ez du inoiz deliturik egin; hala ere, tematuta jarraitzen dugu batek egindakoaren errua inolako zerikusirik ez daukatengana zabal-tzen. Delitu baten erantzukizuna egilearena izan behar da, ez beste inorena. Berdin da etorkina izan edo ez.

Heziketari dagokionez, gaztetxo horien gehienak dute bere esku jartzen diren errekurtsioak. Hala ere, gizarte talde askok eta Arartekoak berak salatu dutenez, oraindik ere zentro batzuetan, Debakoan

esaterako, Foru Aldundiak ez du legea betetzen, eragozten duelako bere tutoretzapean dauden gazteek heziketa prozesua burutzeari. Modu honetan, gaztetxoek gizarteratzea eta lan munduratzeari bilatu ordez, bazterkeriara bideratzen ditu.

Beharrezkoa da arlo honetan dauden esperientzia positibo ugarietatik ikastea eta negatiboak saihestea. Ildo honetatik, gure herrietako udal eta gizarte erakundeek euren gain hartu behar dugu gazte hauek gizarteratzeko erronka, eta aldi berean, adi egon behar dugu adin txiki-koentzako zentzokideak bat egin dezan legeriaren eta giza eskubideen errespetuarekin.

Beste nerabeek bezala, heziketa eta maitasuna behar dute



IKASTOLA
38 urte Ermua euskalduntzen



**TXINDURRI
TALDEA**
Tokian tokiko



Enter
INFORMÁTICA
SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA
VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es



-ARRAINDEGIA
-ITSASKIAK
-ARRAIN FRESKOAK ETA
IZOZTUAK

**ESKAINITZA BEREZIA
OSTIRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

Inoren kargura ez dauden adin txikiko etorkinei buruz zein iritzi duzu?

Pentsatzen dut kapitalis-
motik eratorritako arazo
global baten zati direla.

Guk gurekoi jokatu-
zuzenean eragiten digun
alderdia baino ez dugu
ikusten. Modu negatibo-
an eragiten dizkiguten
aldeak nabarmentzen
dituzte komunikabideek,
ez arazoaren muina.



Ramon Carrasco. 37 urte. Langilea



Uste dut nahikoa dutela
pairatzen duten egoera-
rekin, beraz, ematen
zaizkien laguntzak ondo
iruditzen zaizkit. Hedabi-
deetan batez ere, adin
txikiko etorkinekin erla-
zioa duten albiste negati-
boak agertzen dira eta
horrek eurekiko iritzi
negatiboa izatea dakar.

Fran Garcia. 32 urte. Langilea

Ez dut iritzirik euren ingu-
ruan ez baititut ezagu-
tzen. Hala ere, iruditzen
zait oro har gehienok
eurekiko jarrera negatiboa
dugula. Suposatzen dut,
hein batean komunikabide-
ek badutela zerikusirik,
adin txikiko etorkinen
ekintzak modu negatiboan
islatzen dituztelako.



Ziortza Agirregomezkorta. 29 urte. Langilea



Dakidana nire inguruan
entzundakoa da, ez dut
komunikabideetatik jaso.
Badirudi, inoren kargura
ez dauden adin txikiko
etorkinak erakundeetatik
kanpo ez dutela kontrol
handirik.

Iker Hidalgo. 22 urte. Ikaslea

Ezagutzen dudanaren
arabera, esan dezaket
erakundeak lan garrantzi-
tsua egiten ari direla,
laguntza eta zaintza zer-
bitzuak eskainiz. Beraz
uste dut, inoren kargura
ez dauden adin txikiko
etorkinen zentruen koka-
penak ez gaituela ardura-
tu behar.



Nerea Izagirre. 37 urte. Langilea



Nik sumatzen dut gazte
horien inguruan nolabai-
teko kezka eta askotan,
inguruan entzuten ditu-
gun zurrumurruak eragin-
dakoa izaten da, gehiene-
tan ekintza negatiboekin
lotuta egoten dena.
Komunikabideek nola
jorratzen duten gaia iku-
sita, ez dute laguntzen.

Ainhoa Cid. 34 urte. Langilea

Testua: Alazne Aiestaran

*Euskara eta euskaltegia
egin biak zureak*

UDAL EUSKALTEGIA

Teresa Murga, 2. solairua
Tel. 943 17 09 25

Σ REMU AKADEMIA

ez zaitetz atzean gelditu, zatoz guregana!

Diputazio, 15 - behea 943 17 01 88

HORTZklinika
nerea iñiguez

San Ignazio, 4 ERMUA

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 3:
'Como en casa en ningún sitio'

Hilak 10:
'Ice Age 3'

Hilak 17:
'Kika superbruja y el libro de los hechizos'

Hilak 24:
'Pequeños invasores'

Hilak 31:
'Up'
17:00etan. Lobiano Kultur Gunean.

ZINE-KLUBA (Japoniako zinearen zikloa)

Hilak 7:
'Big bang love'

Hilak 14:
'Still walking'

Hilak 21:
'Despedidas'

Hilak 28:
'Paprika: detective de sueños'
19:00 eta 21:30ean.
Lobiano Kultur Gunean.

ANTZERKIA

Hilak 2:
'Animatic'. Scrupaplats taldea. 19:00etan. Orbe Kardinalaren plazatik.

Hilak 9:
'Ellas bailan solas'. Pikor Teatroaren taldea. 19:00etan. Orbe Kardinalaren plazan.

Hilak 15:
'Hamster'. Juanjotero Produkzioak. 22:15ean. Lobiano Kultur Gunean. Sarrera: 5€.

Hilak 22:
'Mime for laughs'. Yreneusz Krosny. 22:5ean. Lobiano Kultur Gunean. Sarrera: 5€.

Hilak 29:
'Euskarazetamol' Ez dok hiru taldea. 22:15ean. Lobiano Kultur Gunean. Sarrera: 5€.

MUSIKA

Hilak 23:
Blues Kontzertua: Gaby Jogeix. 20:00etan. Lobiano Kultur Gunean. Sarrera: 5€.

Hilak 24:
Gabon kantak plazara. 21:00etan. Orbe Kardinalaren plazan.

Hilak 30:
Ermuan Kantuan. 12:30ean. Orbe Kardinalaren plazatik.

ERAKUSKETAK

Hilaren 2tik 17ra:
Margoa: Gemma Monreal.

Hilaren 2tik 17ra:
Argazkiak: 'Afrikatik ibili nintzen'. Jairo Berbel

Hilaren 18tik 31ra:
Pintura: Argiñe Berrojalbiz.

Lanegunetan
18:00etatik
20:00etara.
Asteburuetan

12:00etatik
14:00etara eta
18:00etatik
20:00etara.

Lobiano Kultur Gunean.

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Hilaren 4ra arte:
Gabonako Haur Parkea: hainbat ekitaldi. Goizez eta arratsalde. Udal Kiroldegian. Sarrera: 2 €.

Hilak 5:
Haurrentzako tren. 11:00etatik
14:00etara. Orbe Kardinalaren plazatik.

Hilak 5:
Errege Magoen Kabalgata. 18:00etan.


Hilak 16:
Haurrentzako antzerkia: 'Kartoibiraka', Markeliñe taldea. 17:00etan. Lobiano Kultur Gunean. Sarrera: 3€.

Hilak 30:
Haurrentzako antzerkia: 'Ipuinez ipuin', Eidabe taldea. 17:00etan. Lobiano Kultur Gunean. Sarrera: 3€.

BESTELAKOAK

- **Hilak 24:**
Extremadurako txarri boda. 10:00etatik. Extremadurako Zentroan.

Patxi López

Harategia

M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
Geure Baserrian
Hazitako Txalak

GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA
Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

OPTICA J. CASADO

Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antiajuak
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA

MIGUEL Harategia

TXORIZOAK
ODOLOSTEAK

Probaleku, 3
☎ 17 05 63
ERMUA
(Bizkaia)

hamburguesería TITANIK

Pintxo dastaketa
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

Piztu LTDa

Askoz gehiago gozatuko duzu

Kalitate Handiagoa

Teknologia digitalak irudi- eta soinu-kalitate handiko telebista dakarkigu: zaratarik gabe, interferentziarik gabe eta irudi bikoitzik gabe.

Guztientzako Programazioa

20 telebista-kanal baino gehiago izango dituzu zure eskura: betikoak eta kanal-eskaintza gehigarri handia, era askotako edukiekin (musika, kirolak, haurrentzako, filmak, telesailak...).

Zerbitzu

Elkarreragileak

LTDri esker, telebistako kide aktiboa bilakatuko zara. Hori guztia zure urrutiko kontrolarekin.



Datorren **urtarrilaren 10ean** emanaldi analogikoak bukatuko dira Bizkaian *. Telebista ikusten jarraitu nahi baduzu egiaztatu zure telebista-instalazioa LTDra egokituta dagoen, horrela ez bada, erosi deskodegailu bat edo deskodegailua duen telebista.

*Bilboko metropolia izan ezik.

Informazio gehiago: 901 201 004

GREMIOEN GIDA

DEKORAZIOA
OBREIN KOORDINAZIOA * MARIAN CARRACEDO DEKORATZARLEA

dekorazio estudioa

trastévere
barruko dekorazioa

san pelaio, 26 ermua
tel/faxa. 943 17 90 89
trastevere@wanadoo.es

ITURGINTZA

FONTANERIA
B. DE DIOS

Baimendutako instalatzaileak
iturgintza, gasa, kalefakzioa eta
petrolio produktuak

Gipuzkoa etorb. 48 - behea Komunetako altzariak
eta osagarriak
Tel/Fax. 943 17 01 09
E-maila: bdedios@euskalnet.net



ELEKTRIZITATEA

BETA

ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gaueko tarifa
- erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13 **943 17 65 25**
689 23 31 71

ERROTULAZIOA

ROTEK
rótulos

- Argi errotuloak
- Autoendako errotuloak
- Barne errotulazioa
- Irudi korporatiboa
- Neoia
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behekoa industrialdea
C-1 partzela, 5 behea (Mallabia)
☎ eta Faxa: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA

LUIS VALLE

Bainugelen erakusketa
943 17 15 56

Tailerra
943 17 23 56

Goienkale z/g

ELEKTRIZITATEA

ZUBIAURRE
ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ETA MUNTAI ELEKTRIKOAK
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

☎ 943 17 00 61 Faxa. 943 17 42 17
Zubiaurre, 18 - 48260 ERMUA

PERTSIANAK

PERSIANAS ORBE

- muntaia eta konponketa
- motorizazioa
- pertsiana dekoratiboak
- pertsiana bilgarriak
- segurtasun pertsianak
- moskiterak

Zearreko buelta, 2
943 17 66 34
630 01 13 41

SERRAILAGINTZA

SEGURTASUNA **K21**

GILTZAK
SARRAILAGINTZA

- ☞ Era guztietako sarraila eta segurtasun kutxen **SALMENTA** eta **MANTENUA**.
- ☞ Sarrailen **EGOKIPENAK**.
- ☞ Era guztietako giltzen **KOPIAK**.
- ☞ Segurtasun eta iheserako **INSTALAKUNTZAK**.
- ☞ Trabatutako ateak **ASKATZEN** ditugu.

Urgentzietarako **ZERBITZUA:**
943 701391
- Betatik 24etara -

Arragueta 3 (Eibar) - 943 701 391
www.giltzak.com

**Gremioen Gidan
publizitatea jartzea
nahi baduzu...**

**deitu
943 17 93 50**

edo 688 63 28 76